



III. KONPARATIBOAK: BERDINTASUNA

- Aurreko kurtsoetan ikasiak dituzu konparazioan erabiltzen diren **-ago**, **-en** eta **-egi** atzizkiak (*handiago*, *handien*, *handiegi*). Orain berdintasunezko konparatiboa egiten ikasiko duzu.



"NIRE ETXEA ZUREA BEZAIN HANDIA DA"



"NIRE ETXEA EZ DA ZUREA BEZAIN HANDIA"

III.1. BEZAIN

- Adjetiboak eta adberbioak konparatzeko **bezain** erabiltzen da:

(A) **B BEZAIN** adjetiboa/adberbioa (A)

(ni) **zu bezain ona** naiz

zu bezain berandu etorri naiz (ni)

Adibideak:

Nire etxea zurea bezain handia da	(tan grande como...)
Nire autoa ez da zurea bezain dotorea	(tan elegante como...)
Trena bezain segurua da hegazkina	(tan seguro como...)
Atzo bezain berandu etorri zara gaur	(tan tarde como...)
Ez zara behar bezain erne ibili	(tan despierto como...)
Zuk bezain urruti daukat nik etxea	(tan lejos como...)

ARIKETAK

1. Sartu bigarren esaldia lehenbizikoan **bezain** erabiliz:

Adibidez:

Mikelen etxea (ere) dotorea da; zurea dotorea da
Mikelen etxea zurea bezain dotorea da

1. Irenerekin dabilen mutilak (ere) ondo daki eskiatzen; zure lagunak ondo daki eskiatzen.
2. Berandu etxeratu ginen gu (ere) atzo; zuek berandu etxeratu zineten.
3. Nahi baduzue, lasai biziko zarete (zuek ere); gu lasai bizi gara.
4. Amak egin zigun erregalua (ere) polita zen; aitak egin diguna polita da.
5. Goizean tokatu zaigun txoferra (ere) zakarra zen; hau zakarra da.
6. Asko zekien jendea (ere) urduri zegoen; gutxi zekiena urduri zegoen.
7. Txikitan geneukan txakurra (ere) maitagarria zen; Pintxo maitagarria da.

8. Atzo utzi zizkidaten bideo-zintak (ere) itsusiak ziren; aurrekoak itsusiak ziren.
9. Amona zahartua (ere) aurkitu dut; aitona zahartua aurkitu dut.
10. Baratze hau (ere) zaindua dago; Alderdi Ederreko jardinak zainduak daude.
11. Nesken komunak (ere) zikinak zeuden; mutilenak zikinak zeuden.
12. Aurpegia zuria zuen; pareta zuria da.
13. Mallorca (ere) urruti dago; Menorca urruti dago.
14. Orain ez dago (hain) trankil; irten denean trankil zegoen.
15. Orain ez zara (hain) sarri etortzen; lehen sarri etortzen zinen.
16. Maleta hau ez da (hain) astuna; hura astuna da.
17. Gaur ez da (hain) nekatua etorri partidutik; atzo nekatua etorri zen.
18. Ez da inorekin (hain) ondo konpontzen; zurekin ondo konpontzen da.
19. Etxe zaharrean (ere) ondo bizi ginen; berrian ondo bizi gara.
20. Alkohola (ere) kaltegarria da; tabakoa kaltegarria da.

2. Ipini ondoko esaldietan dagokion adjetiboa edo adberbioa:

1. Udaberria ez da uda bezain ... izaten.
2. Matematika, Fisika bezain ... egiten zaigu.
3. Jai egunetan ez gara astean bezain ... jaikitzen.
4. Gu ez gara eskale hori bezain
5. Pozik gaude gaurko berriak atzokoak bezain ... izan direlako.
6. Merkerik ez dago ezer; sagardoa bera ardoa bezain ... jarri da.
7. Gaur ere berandu oheratuko gara. Izan ere, gaurko pelikula atzokoa bezain ... da.
8. Ez baduzu azterketa behar bezain ... egiten ez duzu kurtsoa gaindituko.
9. Jende gutxi ezagutu dut nire aita bezain Ez zen inoiz bere onetik ateratzen.
10. Gaueko hamarretatik aurrera ez duzu inor ikusiko: kaleak bezain ... egoten dira tabernak.
11. Ogi hura ezin zen jan: harria bezain ... zegoen.
12. Ez zegoen batere ondo: pareta bezain ... zuen aurpegia.
13. Gizona bezain ... eta leher eginda egon arren, andreari tokatzen zaio beti etxeko lanak egitea.
14. Hau al da etortzeko ordua? Mila aldiz esan dizut goizago etorri behar duzula. Gaur ere atzo bezain ... etortzen bazara, bihar etxean geratuko zara.
15. Paperez eta zaborrez betea uzten du jendeak egunero hondartza. Iluntzean, ordea, garbitzaileak pasatzen dira eta bezperan bezain ... uzten dute.

ADINA

- Izenak konparatzeko, berriz, **adina** erabiltzen da:

(A) **B ADINA** (izena mugagabea) (A)

(nik) **zuk adina diru** daukat
zuk adina diru daukat (nik)

edo:

(nik) **zuk adina** daukat
zuk adina daukat (nik)

Adibideak:

Zuk adina indar dauka horrek (tanta fuerza como...)
 Aitak semeak adina lan egiten du (tanto trabajo como...)

Zuk adina dakit nik (tanto como...)
 Aitak semeak adina egiten du (tanto como...)

Oharra:

Bizkaieraz **beste** hitza erabiltzen da egitura horretan:

Zuk beste diru daukat nik
 Semeak beste egiten du aitak



SEMEAK EZ DU AITAK ADINA JATEN

3. Sartu bigarren esaldia lehenbizikoan, **adina (+ izena)** erabiliz:

Adibidez:

Mikelek (ere) arrain asko hartu ditu; Koldok arrain asko hartu ditu
Mikelek Koldok adina arrain hartu du

Nik (ere) asko erretzen dut; gizon zahar horrek asko erretzen du
Nik gizon zahar horrek adina erretzen dut

1. Haurrek (ere) asko jaten dute; helduek asko jaten dute.
2. Orain (ere) amets asko egiten dut; gaztetan amets asko egiten nuen.
3. Orain ez dago apaiz asko; lehen apaiz asko zegoen.
4. Gauez ez da jende asko ibiltzen kalean; egunez jende asko ibiltzen da.
5. Sestaok (ere) lau gol egin ditu; Eibarrek lau gol egin ditu.
6. Garai batean ez zegoen bertsolari asko; gaur egun bertsolari asko dago.
7. Orain (ere) ile asko dut; gaztetan ile asko nuen.
8. Aurten ehun txirrindulari abiatu dira Tour-ean; iaz ehun irten ziren.
9. Gutxitan izan da mediku asko gure herrian; orain mediku asko dago.
10. Orain ez dut asko gastatzen; gaztetan asko gastatzen nuen.
11. Neska horrek (ere) asko daki; guk asko dakigu.
12. Zure autoak (ere) gasolina asko erretzen du; nireak gasolina asko erretzen du.
13. Zure lagunak (ere) asko hitz egiten du; nireak asko hitz egiten du.
14. Hogei kilometro egin ditut nik; zuk hogeia kilometro egin dituzu.
15. Ez da erraza mila pelikula ikusten; zuk mila pelikula ikusi dituzu.

4. Amaitu ondoko esaldiak izen egokiren bat ipiniz edo, beharrezkoa ez bada, dau-
den bezala utzi:

1. Gaur adina ... gutxitan biltzen da San Mamesen.
2. Oso herri festazalea da Tolosa. Han adina ... ez da beste inon egiten.
3. Nemesio da herriko gizonik zaharrena; hark adina ... ez du inork.
4. Gure amona zena oso langilea zen; hark adina ... egindako asko ez dago gure herrian.
5. Aurten Errealak ez du iaz adina ... irabazi.
6. Akademietan ez da eskoletan adina ... matrikulatzen.
7. Aurten ez dut iaz adina ... irakurri.
8. Ez da harritzekoa gazteek hainbeste edatea: auzo honetan adina ... ez dago beste inon.
9. Adizu, ni ez nago burusoila; zuk adina ... badut behintzat.
10. Erretzeari utziko ziola agindu zigun, baina lehen adina ... erretzen duela esango nuke nik.
11. Harri-jasotzileek adina ... ez baduzu ere, erraz eramango duzu maleta hori.
12. Aberatsa ez naiz, baina arropa berria erosteko adina ... badut.
13. Sendagileak esan duenez, orain ez duzu lehen adina ... hartu behar.
14. Pista denak irekiak daude; eskiatzeko adina ... badago guztietan ere.
15. Mikeli ezin zaio ezer sinetsi; horrek adina ... esango duenik ez dago.

III.2. HAIN, HAINBESTE

- Konparazioak bigarren elementurik ez duenean, ez da **bezain** edo **adina** erabiltzen, beste hitz hauek baizik:

(tan + adjetibo/adverbio)

(tanto + [substantivo])

**HONEN
HORREN
HAIN**

**HONENBESTE
HORRENBESTE
HAINBESTE**

Adibidez: ➡

Zugatik etorri naiz honen goiz	(tan pronto)
Nora zoaz horren dotore?	(tan elegante)
Ez nuen uste hain urruti bizi zinenik	(tan lejos)
Honenbeste jende ez da askotan ikusten	(tanta gente)
Bero dago, ez eraman horrenbeste arropa	(tanta ropa)
Hainbeste urte ba al ditu zure aitak?	(tantos años)

- Hirugarren graduko formak —hau da, **hain** eta **hainbeste**— dira normalean erabiltzen direnak. Beste biak markatuagoak dira.

Beraz, ondoko ariketetan batez ere **hain** eta **hainbeste** formak landuko ditugu.

ARIKETAK

1. Ipini hutsunetan **hain** edo **hainbeste**:

- Gaur eskolarik ez badute, zertarako jaiki dira ... goiz?
- ... polizia ikusita, korrika hasi ziren manifestariak.
- ... jan eta gero zer lan egingo duzue zuek?
- ... gaizki ikusi zutenean, ospitalera eraman zuten alaba.
- Ez dakit nola sartzen den ... haur gela horretan.
- Gurekin ... urte pasatu eta gero, guztiz etxekoa dugu.
- ... ehiztari izanik, uso bat ere ez da bizirik pasatuko.
- Ikusten al duzue ezer ... leku ilunean?
- Zertarako ditu Mikelek ... erregalu?
- Beharrezkoak al dira ... ertzain ... herri txikian?
- ... eskailera igo eta gero arnasarik gabe geratu naiz.
- Nola eman dute baimena kale horretan ... taberna jaritzeko?
- ... festa eta ... handiak ez da beste inon egiten.
- ... gozoa ez zait gustatzen kafea.
- ... zaharra ere ez da; berrogei bat urte izango ditu, ez gehiago.

III.3. ESKEMA NAGUSIA

	ADJETIBO / ADBERBIOA	IZENA
1. Elementu bakarra	TAN	TANTO
	HONEN HORREN HAIN	HONENBESTE HORRENBESTE HAINBESTE
2. Elementu bi	TAN...COMO	TANTO...COMO
	B BEZAIN	B ADINA
Adibidez:		
1. Elementu bakarra	hain ona hain ondo	hainbeste diru hainbeste
2. Elementu bi	zu bezain ona zu bezain ondo	zuk adina diru zuk adina
Adibidez:		
Hain ona zenik ez nuen uste Hain ondo ibiliko ginenik ez genuen pentsatzen Zertarako behar duzu hainbeste liburu? Hainbeste ere ez dut gastatu Zu bezain ona zen zure aita ere Zu bezain ondo ibili gara gu ere Zuk adina diru ez dut nik gastatu Zuk adina ernan diot nik ere haurrari		

ARIKETAK

1. Ipini dagokion partikula (*hain, hainbeste, bezain edo adina*):

1. Garestia zela banekien, baina ez nuen uste ... balioko zuenik.
2. Zuk ... diru ez dut, baina zu ... ondo bizi naiz.
3. Zorroa hautsi zaiola? Harritzekoa al da ... betea eramanda?
4. Gaztetan ... lan ez dut egiten orain.
5. ... ordu zutik egonda normala da nekatuta egotea.
6. Zerua ... ilun ikusita, nola joan zarete hondartzara?
7. Aurtengo udan ez dabil iaz ... jende Donostian.
8. Xerra eskatu dut bai, baina ez ... handia; erdiarekin nahikoa dut.
9. Ez erre ... , gizona! Ez al zara konturatzen kalte egiten dizula?
10. Behar ... jaten al duzu? Oso argala ikusten zaitut.
11. Anima zaitetz, Patxi! Ez da ... beldurtia izan behar.
12. Ongi bizi dira horiek gure aldean: nahi ... diru badute eta, diruaz aparte, osasunaz ere ondo dabilta. Zer gehiago behar dute?
13. ... gaztea izanik, nola hartu dute lanean?
14. Zure bila ibili nintzen atzo Alderdi Zaharrean, baina ez zintudan aurkitu. Izan ere, ... jende zebilen!
15. ... olatu handiak izanda, nola ausartu zara uretan sartzen?
16. Ez nik nahi ... laster, baina amaitu da noizpait kurtoa!
17. Ez jantzi ... arropa, neska; bero dago gaur.
18. Ez nuen uste zuen etxea ... urruti zegoenik. Hurrengoan autobusez etorriko naiz.
19. Irakasle berriarekin ez dira lehengoarekin ... ondo konpontzen.
20. Behar ... jende ba al dago taldea osatzeko?

2. Euskaratu:

1. ¿A dónde vais tan de prisa?
2. Si habláis tanto, al final nadie os hará caso.
3. No te conviene comer tanto.
4. De joven no tenía tantos amigos como ahora.
5. Ven tan pronto como puedas.
6. A pesar de tomar tantas medicinas, sigue tan delgado como antes.
7. Nadie nos ayudó tanto como tú.
8. No sabían dónde meter tanto libro.
9. No te creas, no había tanta gente como esperábamos.
10. Yo sabía nadar tan bien como tú, pero me cansaba antes.
11. Si comes tan poco, no tendrás fuerza para nada.
12. Nunca los había visto tan contentos.
13. Nadie preparaba una comida tan rica.
14. Los barrios no están tan limpios como el centro.
15. No llores tanto.
16. Es peligroso llevar tanto dinero en la cartera.
17. Esa casa no era tan grande como la otra, pero era más barata.
18. No era tan pobre como decía.
19. Nunca lo había visto tan triste.
20. ¿Por qué gritáis tanto?

1 Bete hutsuneak, dagokion partikula ipiniz.**MULTIZINEAK UGALTZEN**

Harrigarria da zenbat zine itxi dituzten ... denbora laburrean. Diotenez, azken aldi honetan ez omen zen lehen ... jende joaten zinera eta oso noizean behin betetzen omen ziren lehengo areto handi haiek. "Zertarako behar ditugu ... areto handiak?", esaten zuten enpresariak, "erdi hutsak ikusteko beti?".

Beraz, esan bezala, zine areto askori ere iritsi zaio 'jubilatze'ko garaia'. Batzuk, ordea, zatitu egin dituzte: lehen areto handia, edo ez ... handia, zegoen lekuan, orain bizpahiru areto txiki egin dituzte. Lehen zine bakarrak zirenak orain sala askotako multizine bihurtu dira. "Eta zertarako behar dira ... zine txiki?", galdetuko du beharbada norbaitek, "ez al dira horiek ere hutsik egongo?".

Arrisku hori bazegoen, baina orain arteko esperientzia ez da batere txarra izan. Izan ere, horrela jokatura gauzak hobetu egin dira. Filme-eskaintza zabalagoa denez, lehen ... jende ezezik, lehen baino gehiago ere joaten omen da orain zinera. Eta lehen baino maizago, gainera. ... pelikula ematen dutenez, beti aurkitzen duzu gustukoren bat.

Eta, jakina, negoziak ondo doala ikusita, pozik dira enpresariak.

H.

↪ **a. Aurkitu testuan hitz eta esaldi hauen antzekoak:**

esaten dutenez	hortaz	bilakatu	sarriago
filme aukera	tokian	harritzekoa	bi edo hiru

↪ **b. Aukera ezazu esaldirik egokiena:**

- a) Zine-areto denak sala txikitan zatitu dituzte
 - b) Zine gehienak itxi egin dituzte
 - c) Zine batzuk sala txikitan zatitu dituzte
 - d) Zine gehienek lehen bezala jarraitzen dute
- a) Multizineen esperientzia ondo doa
 - b) Multizineak gaizki doaz
 - c) Multizineak ixten ari dira
 - d) Areto guztiak bihurtu dira multizine
- a) Pelikula gutxiago ikusteko modua dago orain
 - b) Lehen baino pelikula gehiago ikusteko aukera dago orain
 - c) Jendea ez da lehen bezain maiz joaten zinera
 - d) Zaila da gustuko pelikularen bat aurkitzen